

Euskararen normalizazio prozesuaren azterketa: Lautadako Kuadrillako kasua

Tesiaren egilea: Iñigo Beitia Zabala

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila

Doktorego-programa: Gizartea, Politika eta Kultura Doktorego Programa

Jakintza-arloa: Hizkuntza-antropologia

Tesi-zuzendaria: Josu Martinez Martinez eta Josu Amezaga Albizu

Tesiaren laburpena:

Azken hamarkadetan kezka azaldu da euskalgintzaren zein erakunde publikoen aldetik euskararen normalizazio-prozesua dela eta, biek azpimarratu baitute prozesua *impasse* egoeran dagoela. Ikerketa hau, beraz, testuinguru orokor horren baitan kokatu behar da: aurrera doa euskararen normalizazio-prozesua? Lan honetan, batetik, euskararen normalizazio-prozesua ulertzeko eredu teoriko bat proposatzen dut, egungo egoera ulertze aldera. Horretarako, batez ere antropologiak eskaintzen dituen tresna teoriko eta metodologikoetan oinarritu naiz, testuinguru kultural batean txertatuz.

Bestetik, Araban kokatuta dagoen Lautadako Kuadrilla eskualde administratiboa hautatu dut kasu-azterketa egiteko eremu gisa, proposatutako eredu teorikoa garatzeko asmotan. Eskualde hori hautatzeko arrazoiak honako hauek izan dira: 1) erakunde publikoek rol garrantzitsua eduki dutelako lurraldearen euskalduntzean; 2) Arabako hiztun gehienak hiztun berriak direlako; 3) Arabako euskararen normalizazio-prozesua sakonago aztertzeke; 4) herri-mugimendu euskaltzaleak Agurainen aktibazio-eraketak bat bultzatu zuelako ondoren eskualdera zabaltzeko; 5) eskualdean euskal kulturako elementuak berreskuratzeko ahaleginak egin direlako, Zalduondoko herri-inauteriak kasu, eta horrek euskararen normalizazioan lagundu ahal izan duelako.

Eremu horien lanketarako, berriz, ikerketan zehar hiru hipotesi nagusitan oinarritu naiz: 1) euskararen normalizazio-prozesuan zehar euskara zein normalizazio-prozesua bera modu ezberdinetan ulertu izan dira; 2) 1980ko hamarkadan Hego Euskal Herrian eratutako erakunde publikoek euskara eta normalizazioa ulertzeko eredu zehatz bat hautatu zuten; 3) egungo egoera, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokiola, neurri handi batean erakunde publiko horiek ezarritako ereduaren ondorio zuzena da.

Lana hiru atal nagusitan egituratzen da: 1) lehena marko teorikoa da eta bertan testuinguru zein hipotesietan aipatzen diren kontzeptu eta ideia nagusiak definitzen dira; 2) bigarrenik, marko teorikoan kontzeptu nagusiak zehaztu ondoren, proposatutako eredu teorikoa aurkezten da, euskararen normalizazio-prozesuaren

analisi historikoan; 3) azkenik, marko teorikoa eta analisi historikoa aurkeztu ondoren, kasu-azterketa azaltzen da. Azken horretan metodologia etnografikoa erabili dut, behaketa parte-hartzailea eta elkarriketak izanik erabilitako teknika nagusiak. Kasu-azterketa garatzeko ere, marko teorikoan eta analisi historikoan landutako kontzeptu eta ideietan oinarritu naiz.